

Emakumeak, joko-eremutik kanporatuak

Garai zailak bizi ditu emakumezkoen kirolak gurean: Osasuna futbol taldearen murrizketapolitikaren ondorioz klubak ez du datorren denboraldian nesken futbol talderik izango, eta Iruñeko San Juan ere desagertu egingo da. Halaber, Donostiako Bera Bera eskubaloitaldeak uko egin behar izan dio Txapeldunen Ligan jokatzeari, ez duelako diru-iturri berririk aurkitu.

| JON TORNER ZABALA |

OSASUNAREN erregional mailako taldea desagerrarazi zuten aurreko denboraldian, eta Bigarren Mailan aritu beharko litzatekeena kendu dute orain. Iruñea bertako San Juan taldeak ere bide bera jarraitu du, eta Barañaingo Lagunak Erregional Mailara jaitsi da.

Osasunako entrenatzaile Iosu Dominguezek hitzetan, zuzendaritzak jakinarazi die taldea gaur gaurkoz ez dela bideragarria: “Azaldu digute harremanetan jarri direla Nafarroako Kirolaren Institutuarekin eta Iruñeko Udalarekin, Osasunak ezin duelako proiektua %100ean bere egin. Entzungor egin dute denek, eta ondorioz ez dugu nesken talderik izango”.

Hainbat eragilek Nafarroako Gobernuak dute jo-puntuan: “Gehiago interesatzen zaie emakumezkoen kirolari min handia egin dioten fikziozko proiektuak babestea, iaz desagertutako Itxako eskubaloitaldearekin gertatu bezala; edo errendimendurik apenas eman duen Navarra Arena moduko azpiegitura faraonikoetan inbertitzea”, kexu dira *Navarra Deportiva* agerkariko kideak.

Ardoi, Bigarren Mailan

Emakumezkoen Bigarren Mailan arituko den taldea Zizur Nagusiko Ardoi izango da. Nesken futbolak bizi duen egoera iluna argitzen duen albistea da, baina kontuan hartu behar da arrazoi ekonomikoengatik Bigarren Mailan jokatzeari uko egin dion Castejón taldearen lekua hartuko duela Ardoi.

Mulier, emakumezkoen futbolaren aldeko apustu berria

Osasuna desagertu ostean Eva Blanco buru duen lan-taldea proiektu berria hasi zen mamitzen, zenbait gurasoren babesarekin: Mulier. Epe luzera begirako ekimena da, denboraldi-aurrea Osasunarekin egin zuten 30 jokalarik gazteak oinarri dituen, eta helburu duena futbol eskola sortzea, besteren artean.

Bera Berak uko Txapeldunen Ligari

Donostiako Bera Bera eskubaloitaldeak bigarren jarraian irabazi du aurreten Espainiako Liga. Hala zegokion arren, ordea, uko egin dio Txapeldunen Liga jokatzeari, ez duelako aurkitu behar ekonomikoak aseko lituzkeen babesle edo bestelako diru-iturri berririk.

“Kluba ekonomikoki arriskuan ez jartzeko eta gainerako kirol erronkak ez hipotekatzeko pauso bat atzera ematea erabaki dugu”, azaldu du taldeak.

600.000 euro inguruko aurrekontuarekin, Europako txapelketarik garrantzitsuenetan aritzeak kopuru horren %10 hartuko luke. Kirol gehienetan ez bezala, emakumezkoen eskubaloitaldeek eurek ordaindu behar dituzte telebista eskubideak, 20.000 euro inguru taldekako fasea jokatzegatik. Datorren denboraldian estreinakoz, Bera Berak lehen fase hori jokatu beharra izango zuen, Europako Eskubaloien Federazioaren (EHF) araudi berria medio, eta gastuak nabarmen handituko lituzke horrek. ■



Osasunako ordezkariak salatu dutenez, instituzioek bizkarra eman diote nesken taldeari. (Argazkia: Berriozar femenino)

